



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko urriaren 20a

113. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, enpresen deslokalizazioari aurre egiteko neurriei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Lurralde Estrategia berrikusteari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (4. or.).
- Galdera, genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunetik heldu diren aparteko funtsei buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (4. or.).
- Galdera, Nafarroa Berdea garatzeko lan-ildoei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, justiziaren despolitizazioari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Europako proiektuen kudeaketari buruzkoa. Jabi Arakama Urtiaga jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta PFEZeko estimazio objektiboaren sistema (moduluak) kentzeari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (7. or.).
- Galdera, pandemiaren kontrolari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (7. or.).
- Galdera, desberdintasuna desagertzearen osasun-arloko langileen ordainsariak hobetzeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Davalor Saludek Foru Ogasunarekin duen zorra dela-eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak duen ardura politikoari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Green Deal-i buruzkoa. María Elena Llorente Trujillo andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Iruñean, urriaren 12an, Estatuburuaren irudi bat burugabetu zen performanceari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, COVID-19aren diagnostikorako test antigeno berriei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (10. or.).

- Galdera, mugikortasun jasangarri baten aldeko apustuari buruzkoa. Ramón Alzorriz Goñi jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, bizikletak mantendu eta konpontzeko laguntzen deialdiari buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, zorpetze-operazioen interesei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Nafarroako aurrekontuetan abstenitzeari begira Navarra Sumak egindako proposamenari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, egoera epidemiologikoari eta sanitarioari eta hartutako neurrien eraginkortasunari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako 2021erako Aurrekontu Orokorretarako ildo estrategikoei buruzkoa. María Jesús Valdemoros Erro andreak egin du (13. or.).
- Galdera, pandemiak Nafarroan izandako bilakaera dela-eta Osasun Ministerioak ezarritako adierazleei buruzkoa. Uxue Barcos Berruezo andreak egin du (14. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- 10/2020 Foru Lege-dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez neurri batzuk onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arlokoak. Akats zuzenketa (15. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, enpresen deslokalizazioari aurre egiteko neurriei buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Enpresen deslokalizazioari aurre egiteko neurriei Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2020ko urriaren 27ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proposamena 2020ko ekainaren 9ko 66. Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/PRO-00007).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Lurralde Estrategia berrikusteari buruzkoa.

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Lurralde Estrategia berrikusteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela gutxi, Nafarroako Gobernuak adierazi zuen Nafarroako Lurralde Estrategia berrikusteko asmoa duela, eredu jasangarriago eta erresilienteago bat lortzeko asmoz.

Nafarroaren etorkizuneko lurralde-plangintzak zer irizpide eta helburu ezarriko ditu eta zein izanen da Nafarroako Lurralde Estrategia berrikusteko jarraituko den prozesua?

Iruñean, 2020ko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

Galdera, genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunetik heldu diren aparteko funtsei buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunetik heldu diren aparteko funtsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarzak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak urriaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan maiatzaren 4an, Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak legegintzaldi honetan bigarren aldiz parte hartu zuen Berdintasunaren Konferentzia

Sektorialean, eta balorazio positiboa egin zuen “Berdintasun Ministerioak konpromisoa hartu delako Nafarroak Genero-indarkeriaren aurkako Estatu-ituneko aparteko funtsak jaso ahal izan ditzaizun”.

Bost hilabete igaro dira-eta, Gobernuako lehendakariak galdetzen diogu ea zertan diren Foru Ogasunaren eta Ogasun Ministerioaren arteko negoziazioak, funts horiek baliatu ahal izateari begira.

Iruñean, 2020ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Nafarroa Berdea garatzeko lan-ildoetarako buruzkoa.*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroa Berdea garatzeko lan-ildoetarako buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategiko-eko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela hilabete gutxi batzuk baino ez, COVID-19aren pandemiari aurre egite aldera Europar Batasunaren ekintza koordinatutarako buruz-

ko ebazpenean, Europako Parlamentuak Batzordeari eskatu zion ekonomia suspertzeko eta leheneratzeko pakete bat proposa zezan, zeina itun berdean eta eraldaketa digitalean oinarritu beharko bailitzateke. Orduan, Europako Batzordeko lehendakariak hitzez hitz esan zuen itun berdea ez dela “luxua, ezpada koronabirusaren krisitik irteteko salbamendu-uztai bat”.

Leheneratze berdea, posiblea ez ezik ezinbestekoa da; izan ere, Europak galera bikoitza pairatuko luke baldin eta ekonomia zaharra berrezartzeko inbertsioa mobilizatuko bagenu, hura berde eta jasangarri bihurtu ordez. Eta Batzordeak hori bera onartu zuen Next Generation EU programaren ardatz nagusiak taxutu zituenean, adierazi baitzuen errotik aldatu behar direla energia erdua, sistema ekonomikoaren lehentasunak eta herritarren ohiturak, sektore publikoek behar bezala orientatuta eta lagunduta.

Hortaz, etorkizun hurbilerako desiratzen dugun Nafarroa Berderantzko urratsak egin behar dira, eta hori dela-eta honako hau galdetzen dugu:

Zer lan-ildo edo proposamen darabiltzazue gogoan, Europak markatutako trantsizio ekologikoaren baitan, Nafarroa Berdea garatzeko?

Iruñean, 2020ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Galdera, justiziaren despolitizazioari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkeztutako galdera, justiziaren despolitizazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garridok honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure ustez, Espainiako Gobernua osatzen duten alderdiek Diputatuen Kongresuan erregistratu duten lege proposamenak mesede egiten al dio gure herrian Justizia despolitizatzeari?

Iruñean, 2020ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Europako proiektuen kudeaketari buruzkoa.

JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkeztutako galdera, Europako proiektuen kudeaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urtiagak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gure erkidegoko erakunde publiko eta pribatuak, hala nola Europako gure ingurukoak, proiektuak prestatzeko eta aurkezteko prozesuan bete-betean sartuta daude, Next Generation EU planean jasotzen diren laguntzen esparruan.

Kontuan hartuta jokoan dagoen diru kopurua handia dela eta aurkeztutako proiektuak Europako nahiz estatuko erakundeek emandako jarraibideei egokitu behar zaizkiela, honako hau galdetzen diogu Herritarrekiko Harremanetako kontseilariari:

Zure departamentuak nola aurreikusten du aurre egitea, une zinez garrantzitsu honetan, Europako proiektuen kudeaketari?

Iruñean, 2020ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urtiaga

Galdera, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta PFEZeko estimazio objektiboaren sistema (moduluak) kentzeari buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta PFEZeko estimazio objektiboaren sistema (moduluak) kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gáratek, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Heldu den ekitaldiko aurrekontuekin batera doan legean jasoko diren zerga-aldaketan baitan, Nafarroako Gobernuak proposatu du jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta PFEZeko estimazio objektiboaren sistema (moduluak) kentzea.

Galderaren testua:

Nafarroako Gobernuak zer dela-eta planteatu ditu bi neurri horiek eta zer lan-ildori jarraitzea aurreikusten du?

Iruñean, 2020ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, pandemiaren kontrolari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, pandemiaren kontrolari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

COVID-19aren pandemiaren osasun-kudeaketaren emaitza kaskarrek bere horretan dirautela ikusita, nola helduko diozu Nafarroan pandemiaren kontrolari modu eraginkor eta efiziente batez?

Iruñean, 2020ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, desberdintasuna desagertzearen osasun-arloko langileen ordainsariak hobetzeari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, desberdintasuna desagertzearen osasun-arloko langileen ordainsariak hobetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak osasun-arloko langileen ordainsariak hobetuko al ditu egungo desberdintasuna desagerrarazteko eta profesionalak erakartzeko eta fidelizatzeko?

Iruñean, 2020ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Davalor Saludek Foru Ogasunarekin duen zorra dela-eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak duen ardura politikoari buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, Davalor Saludek Foru Ogasunarekin duen zorra dela-eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak duen ardura politikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2020ko zordunen zerrenda argitaratu berriari esker jakin eta gero Davalor Saludek miloi bat eurotik gorako zorra daukala Foru Ogasunarekin, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari ardura politikoak ez exigitzeko tematuta jarraitzen al duzu?

Iruñean, 2020ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Nafarroako Green Deal-i buruzkoa.

MARÍA ELENA LLORENTE TRUJILLO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Elena Lorente Trujillo andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Green Deal-i buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190, 191 eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak nola ulertzen du Nafarroako Green Deal-a? Sektore publikoak nola gauzatuko du lidergoa itun berdean, sektore pribatuaren traktore izateko?

Iruñean, 2020ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Elena Lorente Trujillo

Galdera, Iruñean, urriaren 12an, Estatuburuaren irudi bat burugabetu zen *performance*ari buruzkoa.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, Iruñean, urriaren 12an, Estatuburuaren irudi bat burugabetu zen *performance*ari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen José Suárez Benitok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

1. Nafarroako Gobernuak zer neurri hartu du Sortuk Iruñean, urriaren 12an, egindako ikuskizuna dela-eta, *performance* bat egin baitzuen non burugabetu egiten baitzen besteak beste estatuburuaren irudi bat, musika-emanaldi bat eta guzti?

Iruñean, 2020ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

Galdera, COVID-19aren diagnostikorako test antigeno berriei buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, COVID-19aren diagnostikorako test antigeno berriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasuneko kontseilari Santos Induráin Ordu-nak iragarri du test antigeno berriak erabiliko direla COVID-19aren diagnostikoan. Osasun Departamentuak hiru ardatzetan oinarritu du COVID-19ari aurre egiteko bere ibilbide-orria: "Detekzio-baliabide indartsu bat, esku hartzeko neurrien sorta zabal bat eta kaudimen kontrastatuko osasun-sistema bat". Ibilbide-orri horren baitan, departamentuak kasuen detekzioa indartu nahi du, PCR probak egin bidenabar antigenoen testak eginez osasun etxeetan eta beste esparru batzuetan; adibidez, eskoletan.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

Zer fidagarritasun eta sentikortasun dute test antigeno horiek? Nola ezarriko da horien erabilera O-NOZen? berariazko protokolorik erabiliko al da test horiek Oinarrizko Osasun Laguntzan egin daitezenean, kontuan hartuta COVID-19aren arreta haientzat izaten ari den gainkarga?

Iruñean, 2020ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, mugikortasun jasangarri baten aldeko apustuari buruzkoa.

RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzorriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, mugikortasun jasangarri baten aldeko apustuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzorriz Goñik, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak urriaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Orain dela gutxi, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivitek NAVEAC ekimena aurkeztu du eta mugikortasun jasangarriaren aldeko apustua egin du Europako Erregioen Batzordean. Hori dela-eta,

Zer lan-ildori jarraituko zaio esparru horretan eta zeintzuk dira Europan izandako hartu-eman horietatik ateratzen dituzun ondorioak?

Iruñean, 2020ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Ramón Alzorriz Goñi

Galdera, bizikletak mantendu eta konpontzeko laguntzen deialdiari buruzkoa.

JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztutako galdera, bizikletak mantendu eta konpontzeko laguntzen deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Aguirre Oviedo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak urriaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Galderaren testua:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du bizikletak mantendu eta konpontzeko laguntzen deialdia dela-eta? Gisako beste deialdirik egiteko asmorik al du?

Iruñean, 2020ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Jorge Aguirre Oviedo

Galdera, zorpetze-operazioen interesei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, zorpetze-operazioen interesei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egin du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Jakin dugunez, Nafarroako Gobernuak 6 mailegu- eta zor-operazio eginda ase ditu bere finan-

tzaketa-premien parte handi bat; guztira, 381 milioi euro: 50 milioi Inbertsioen Europako Bankuarekin (9,75 urtera, % 0,07ko interesarekin), 60 milioi BBVArekin (15 urtera, % 0,57ko interesarekin), 25 milioi Kutxabankekin (12 urtera, % 0,34ko interesarekin), 82 milioi Bankiarekin (10 urtera, % 0,25eko interesarekin), 100 milioi Liberbankekin (15 urtera, % 0,59ko interesarekin), eta 64 milioi 12 urtera, % 0,42ko interesarekin.

Zalantzarik gabe, heldu diren 15 urteotan operazio horien interesak ordaintzea eragozpen bat izanen da gure erkidegoaren kontuetarako, lehenetsi egin beharko dena beste gastu edo inbertsioen ginetik.

Zenbatekoa da heldu diren 15 urteotako interesen ordainketa aurreikusia (6 operazio horiek eta lehenago egindako beste batzuk barne, zeinen interesak epe horren barruan ordaindu behar baitira), eta erreforma fiskalen bat aplikatzeko asmorik al dago gure erkidegoaren zorpetze-beharrizanak etorkizunari begira murriztu ahal izateko?

Iruñean, 2020ko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, Nafarroako aurrekontuetan abstenitzeari begira Navarra Sumak egindako proposamenari buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako aurrekontuetan abstenitzeari begira Navarra Sumak egindako proposamenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteko eledun Mikel Buil García Nafarroako Gobernuako lehendakariari zuzenduriko gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, urriaren 22ko Osoko Bilkurarako.

Gobernuak zer balorazio egiten du Nafarroako aurrekontuetan abstenitzeari begira Navarra Sumak egindako proposamena dela-eta?

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, egoera epidemiologikoari eta sanitarioari eta hartutako neurrien eraginkortasunari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, egoera epidemiologikoari eta sanitarioari eta hartutako neurrien eraginkortasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren eledun Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakari María Chivite

Navascués andreari zuzendua, eta heldu den osteguneko, urriaren 22ko Osoko Bilkuraren gairerendari sar dadin eskatzen du.

Orain dela hilabete, irailaren 24an, egoera epidemiologikoari buruz galdetu genizun, eta kutsatzeen erritmoa nahiz osasun-egoeraren okertzea moteltzeko neurri urgenteen plan integral bat egitera premia zintugun.

Egoera ikusita –hobetu ez, baizik eta nabarmen okertu baitira positiboen nahiz hildakoen eta ospitaleratzeen eta ZIUn sartutakoen datuak–, honako hau galdetzen diogu Gobernuako lehendakariari:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du bizi dugun egoera epidemiologikoari eta sanitarioari dagokienez eta azken asteotan hartutako neurrien eraginkortasunari dagokionez? Testuinguru kezkarri honetan, zer erabaki hartuko duzu?

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Nafarroako 2021erako Aurrekontu Orokorretarako ildo estrategikoei buruzkoa.

MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako 2021erako Aurrekontu Orokorretarako ildo estrategikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen María Jesús Valdemoros Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Zeintzuk dira Nafarroako 2021erako Aurrekontu Orokorretarako ildo estrategiko nagusiak, diru-sarreretan nahiz gastuetan?

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros Erro

Galdera, pandemiak Nafarroan izandako bilakaera dela-eta Osasun Ministerioak ezarritako adierazleei buruzkoa.

UXUE BARCOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barcos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, pandemiak Nafarroan izandako bilakaera dela-eta Osasun Ministerioak ezarritako adierazleei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko eledun Uxue Barkos Berruezo, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak heldu den urriaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

COVID-19aren pandemiaren kudeaketa dela-eta, uste duzu Osasun Ministerioak ezarritako adierazleek zintzo erakusten dutela pandemiak Nafarroan izandako bilakaera?

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

10/2020 Foru Lege-dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez neurri batzuk onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arlokoak.

AKATS ZUZENKETA

Akats bat aurkitu da irailaren 16ko 10/2020 Foru Lege-dekretua baliozkotzeari buruz Osoko Bilkurak hartutako erabakia argitaratzean. Aipatu foru lege-dekretuaren bidez neurri batzuk onesten dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arlokoak, eta 2020ko urriaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Horrenbestez, ondoko zuzenketa hau egin da:

Honako hau dioen tokian:

“2020ko irailaren 17ko 211. Nafarroako Aldizkari Ofizialean (...) argitaratu zen”

Honako hau esan behar du:

“2020ko irailaren 21eko 213. Nafarroako Aldizkari Ofizialean (...) argitaratu zen”.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
